

ETORKIZUNENKO INDUSTRIA: PRESTAKUNTZA, UMILTASUNA ETA LANKIDETZA

Etorkizunik badago? Bai. Nolakoa izango da? Ezagutzen dugunaren bestelakoa. Aldaketa historiko baten atarian gaude? Bai.

Aurreikus daiteke? Eraikitzen ari gara. Egun, iragarpenak egitea pentsatze hutsarekin lotsaz gorritzen naiz, edo nabarmen urduritzen.

Zaharra eta berria elkarrekin bizi dira, bai teknologian, bai kulturean, bai gizartean.

Zaharrak eta berriak elkarri eragiten diote, eta denbora/teknologia kontzeptuak bizkortzen ari dira, baina ez pentsamoldeak eta gizarte erakundeak aldatzeko bezainbeste, beste erritmo bat daukate eta.

Kontuan hartu behar da, baita ere, egungo egoeran munduko geopolitika eta geoeconomia eraldatzen ari direla. Europako etorkizuneko industriak honako hauen alde egin behar du: berrindustrializazioa eta XXI. mendeko enpresetako profesionalen prestakuntza.

Berpizkunde teknologiko eta industrialak Europak daukan erroken muinean dagoen ideia nagusia da. Aurre egin behar zaie ekonomia digitalaren transformazio iraultzaileei eta garapen bidean dauden herrialdeetako industriari. Bereizgarri egiten gaituenari eutsi nahi badiogu, behartuta gaude teknologikoki arinago bilakatzerara eta geure hezkuntza sistema garatzen ari den mundura egokitzera. Heztekoko eta prestatzeko era konbentzionalak jada ez dira egokiak dauzkagun errorei aurre egiteko.

Berrindustrializazioaren erroek honako hauek dira: nazioarteko gizartean garatzeko askotariko moduak, kontsumo-ereduen bat-bateko aldaketak eta zerbituzazioa, lehian ari diren ekosistema tekno-industrial indartsuen finkatzea, eta Europak bere ekosistema propioa sortzeko daukan zailtasuna. Hots, garai eta egoera aldaketa baten aurrean gaude; orainoa ez da egoera iraunkor baten eraldaketa hutsa.

Aldaketa horiek Oil&Gas-aren industriari ere eragiten diote. Aldaketa horien eta paradigma industrial berriaren parte da. Energia da beraren negozioa, horren alor guztietan. Eta eraginkortasuna beraren *Core Business-a*. Hori dela eta, zerbituziorako eta produkzio prozesuen digitalizatorako joera nagusitzen ari dira.

Gauzak honela daudela, Oil&Gas-aren alorreko etorkizuneko industrias jarduteko ezinbestekoak dira pentsaera irekia eta berrikuntzan oinarritutako industria energetikoa finkatzea. Horrela aurre egin ahal zaio produktu jasangarria eta kontsumitzailearen behar energetikoei egokitutakoa merkatuan eskaintzeko erronkari. Finean, erronka energia-industria eraldatu behar da, eta horretarako ekonomia digitaleko eta bioteknologiako tresnak erabili behar dira, prozesu industrial eraginkorrak eta neurritza egindako zerbitzu-prozesuak eta eskaintza energetikoa lortzeko.

Oil&Gas-aren etorkizuna, Parisen klimari buruzko goi bileraren testuinguruan, eraginkortasunari eta jasangarritasunari loturik dago. Etorkizun orekatuari loturik dago, non hainbat energia mota elkarrekin bizi diren. Garapenari loturik dago, berrikuntza eta eraldatze teknologikoa parametroak oinarri hartuta. Gure bizitza-estandarrak eta aukerak izan nahi dituzten garatu gabeko herrialdeetako 4.000 milioi biztanleri baino gehiagori produktu eraginkorra eta jasangarria eskaintzeari loturik dago. Ikatza baino jasangarriagoa den energia eskaintzeari loturik dago. Funtsean, ahalbidetu behar da arrazoizkoa eta jasangarria den eskari energetiko baterantz iragatea, teknologia eta eraginkortasuna protagonista direla.

Egoera honetan, beste guztien produktu bera lantzea eta eskaintzea da berrindustrializazioaren erronkatik eta Oil&Gas-aren industrietatik urruntzeko modurik onena. Ikuspegi berria gomendatzen dut, honako honetan oinarritutakoa: arin eboluzionatzea, euskarri teknologikoz eta eraginkortasunez hornitzea, eta teknologia eta finantza arloan indar nahikoa edukitzea.

Horretarako onena da lankidetzan aritzea eta ekosistema eraginkorra sortzeko norik bere harri-koskorra ekartzea. Eta hori lortzeko bide bakarra prestakuntza da, ikuspegi garbi eta zabalarekin eta umiltasunarekin. Eta elkarlanean aritzeari eta lankidetzari beldurrik izan gabe.

Emiliano López Atxurra

Petronorreko presidentea